

● JARDUERAK:

Enpresako langileak izango gara bitartekariak, hau da, eskaera bat jasotzen dugunean gu izango gara eskaera horren erantzule.

Horrez gain, bezeroen arazoan eta erreklamazioen aurrean, gure erantzuna online, telefonoarekin (Whatsapp-a edo deia), edota gmail bitartez izango da.

Gure enpresa ezagutzera emateko instagram kontu bat sortuko dugu, gure aplikazioa eta instagramari indarra emateko “influencer” famatu batzuk kontratatuko ditugu.

Bestetik, bitartekariak eta artistek arazoak izanez gero, bien artean konpondu beharko dituzte. Guk ez dugu parte hartzerik izango bezeroaren aukeraketan, beraz, artistarekin arazo bat balego, guk ez genuke esku hartuko.

Aldiz, arazoa aplikazioarekin baldin bada, gu izango ginatete erantzule, beraz, gmail, telefono, aplikazioko chat-aren (laguntza eskaintzen duena) e.a bidez gurekin kontaktuan jarri eta arazoa konpontzea gure helburua izango da.

Plataforma edo sareko jarduerak kudeatzeko dugunok, hasiera batean, aplikazioa martxan jarri dugunak izango gara. Honek izango dira egin beharreko jarduerak gure appa kudeatzeko eta eskaintzen dugun zerbitzua eta bere abantailak guztioi jakinarazteko:

- Instagram kontua: Kanaletan aipatu dugun lez, instagram kontu bat daukagu. Hiru egunetan behin gure aplikazioa erabiltzen duten artista ezberdinen curriculum vitae-ak publikatuko ditugu. Gainera, artistak egiten dituzten zerbitzuen argazkiak publikatuko ditugu.
- Whatsapp-a eta Gmail kontua: bezeroekin eta artistekin harremanetan jartzeko gure iturri nagusiak bihurtuko dira. Telefono zenbakia zein gmail kontua aplikazioan zehar zein iragarkietan zehar ikusgarri egongo dira.
- Aplikazioa: Aplikazioaren kudeaketaz (konfigurazioa, diseinua...) arduratuko den kidea Irene izango da. Aplikazioaren eguneraketa maiztasun handiz egingo da. Gainera, aplikazioarekin sortu ahal diren arazoak konpontzen saiatuko gara.

